



onura hezitzaileak 2



Eskola Kirola

**Zergatik da ona zure
seme-alabak kirola egitea?**

- Pertsona helduagoa izaten irakatsiko diolako.
- Bizitzako zailtasunak gainditzen lagunduko diolako.

Eskola Kirola

3

Izan ere, ariketa fisikoarekin zure seme alabak...



- **ESFORTZUAREN eta eguneroko lanaren garrantziaz konturatuko da.** Kirolari esker bizitza honetan dena ez dela egina jasotzen ikasi dezake, saiatzea eta ahalegintzea beharrezkoa dela bere ilusio eta epe luzerako helburuetara iristeko.



- **Eguneroko jardunean HOBETZEKO joera eskuratuko du kirolari esker.** Ez da konformatuko lortutako mailarekin eta lan egiteko grina piztuko zaio, maila hori etengabe hobetzeko. Eskolan ere, bostekoa aterazera mugatu beharrean etengabe bere burua gaitzitzeko sena barneratzen lagunduko dio, etengabeko prestakuntza ezinbestekotzat jotzen den gizarte lehiakor honetarako ezaugarri baliagarria izango du hau.

- Bere portaera **AUTOKONTROLATZEN** ikasiko du, eta emozioak puri-purian dauden uneetan bere interesen aurkako erabakiak onartzen ere bai. Kirolak nortasuna, heldutasuna eta morala garatzeko aukera aberatsak eskainiko dizkio. Kirolean sortzen diren hainbat egoera eta testuingurutan kirolariak erantzun egokia aukeratu behar izaten du. Sari erakargarria eskura izan arren gai izan behar du zenbait kasutan horiei uko egiteko, kideen osasunagatik edo zuzen jokatzegatik.



- **AUTODIZIPLINA** zentzua garatuko du, kirolari esker bere buruari arau batzuk ezartzen eta horiek betetzen ikasiko baitu. Bere eguneroko eginkizunak aldeaz aurretik antolatzen (errutina bat jarraitzea), denborari etekina ateratzen eta lehentasunak finkatzen ikastea eragiten du kirolak. Bere borondatez, hainbat erosotasuni uko egin eta esfortzua zein konpromisoa onartzea eskatzen dio.



Ondorioa:

Balioetan hezteko eta umearen nortasuna, gizatasuna eta heldutasuna garatzeko kirola baliabide paregabea dugu.

Gogoan izan:

Zure seme-alabaren heziketarekin arduratuta bazaude, animatu ezazu kirola egitera, Eskola Kirola bereziki.

Beneficios educativos 2

¿Por qué es conveniente que tu hijo/a practique algún deporte o actividad física?

- Porque le ayudará a desarrollar su madurez.
- Porque le ayudará a superar las dificultades de la vida.

...YA QUE POR MEDIO DEL DEPORTE, TU HIJO O HIJA:

Se dará cuenta de la importancia del esfuerzo y la constancia.

- Aprenderá que no todo en la vida es fácil.
- Se dará cuenta de la importancia que tienen el esfuerzo y la constancia para llegar a hacer realidad las ilusiones y proyectos de futuro.

Hará suyo el hábito de la mejora constante.

- No se conformará con el nivel conseguido y adoptará el hábito de la mejora permanente para avanzar en la vida.

Aprenderá a controlar su comportamiento.

- El deporte le dará la posibilidad de desarrollar su personalidad, avanzar en su madurez y fomentar un comportamiento ético.

Trabjará el sentido de la autodisciplina. Aprenderá a:

- Cumplir las reglas.
- Organizar las labores a desarrollar durante el día.

Recuerda:

El deporte es un medio inmejorable para educar en valores y desarrollar la identidad, humanidad y madurez de tu hijo/a.

Si te preocupa la educación de tu hijo/a, anímale a practicar deporte, y en particular el Deporte Escolar.

